



■ HERNANI GABONAK

Kabalgatarako trajeak jasotzeko zita, bihar

Urtarrilaren 5ean aterako da Errege Magoen kabalgata, herriko kaleetan barrena; eta paje bezala atera nahi duten haurrek, bihar daukate zita, trajeak jasotzeko. Biterin banatuko dituzte, arratsaldeko 17:00etatik 18:00etara. ||

■ SAGARRA ETA SAGARDOA

Astigarragako txotx irekiera, 15ean

Bi egun aurreratu dute ekitaldia, Gurutzetan; urtarrilaren 17an ziren egitekoak, baina San Anton eguna da, Txakolin Eguna Getarian, eta aldatzeko eskatu diete. Hemanin, urtarrilaren 13an.

DATA aldatu diote, Astigarragako txotx irekierari; eta urtarrilaren 17an ez, 15ean egingo dute azkenean. Izan ere, San Anton eguna da urtarrilaren 17a, eta Txakolin Eguna ospatzen dute Getarian; horregatik, aldatzea eskatu zieten, eta bi egun aurreratu dute.

Aldatuko ez dena, tokia da: Gurutzeta sagardotegian irekiko dute aurreneko kupela, eta gonbidatua zein izango den jakitea bakarrik falta da.

Hernanin, urtarrilaren 13an

Aldaketarik ez da izango Hernanin, eta aurreikusitako datan ospatuko da: urtarrilaren 13an elkartuko dira Plazan, eguerdian, sagardo berriari aurreneko tragoak egiteko. Gonbidatuen da sekretu bakarra, kasu horretan ere. ||



Gurutzetan egingo dute aurten, txotx irekiera. Argazkian, Gurutzetako Joxe Anjel Goñi, duela bi urteko irekieran.

■ HERNANI ITURRITXO

Haur txokoak gaur eta bihar, Iturritxo elkarteak

Gabonak girotzeko, haur txokoak antolatu ditu Iturritxo elkarteak, Latsunbeberri-Marielutseko auzo elkarteak. Gaur eta bihar izango dira, elkartearen egoitzan, 10:30etatik 13:00etara. ||

■ HERNANI BITERI

Berrikuntzei buruz bilera, gaur

Bilera deitu dute gaur, Biteri kultur etxean, arratsaldeko 19:00etan areto nagusian; eta bertan azalduko dituzte hainbat berrikuntza: areto nagusian egingo diren egokitzapenak (espazioaren lanketa akustikoa, aforoa...), Biteriko beste espazioetan egindako lanak, eta irabazi asmorik gabeko elkarteentzat egin diren 10 takilla berrien kudeaketa. ||

■ HERNANI BERTSOLARITZA

Bertso jaialdirako sarrerak, ordu eta erdi lehenago

Larunbatean egingo dute bertso jaialdia, aurtengo Bertsolataren barruan. Biterin izango da, arratsaldeko 18:30etan hasita; eta sarrerak egunean bertan jarriko dituzte salgai, saioa hasi baino ordu eta erdi lehenago, 17:00etan; eta ez ordu erdi lehenago, atzoko Kronikak zioen bezala. Maila haundiko saioa antolatu dute, puntako sei bertsolari igoko baitira taula gainera: Eli Pagola, Maialen Lujanbio, Unai Agirre, Agin Laburu, Amets Arzallus eta Sustrai Colina. ||

■ HERNANI GAZTE MUGIMENDUA

Lau egunez hamaika ekintza, jardunaldietan

Gaurtik larunbatera, jardunaldiak antolatu ditu Hernaniko Gazte Mugimenduak, gaztetxean.

JARDUNALDI potenteak antolatu ditu Hernaniko Gazte Mugimenduak, urtea bukatzeko: gaurtik larunbatera, lau egunez, hamaika ekintza izango dira Kontrakantxa gaztetxean.

Eta hasteko, lau zita presatatu dituzte gaurko. Gosariarekin egingo dute irekiera, goizeko 11:00etan; eta hitzaldi batekin emango diote segida, eguerdikoko 12:00etan: Hitzarrik

Gazte Mugimenduko euskera taldearen eskutik, Euskararen zapalkuntza historikoa izango dute hizpide.

Arratsaldean, berriz, beste bi zita izango dira: Muxutruk ekimena aurkeztuko dute aurreneko, 17:00etan; eta presoenguruko afari-merienda egingo dute gero, 20:00etan.

Eta bihartik larunbatera ere, launa zita eguneroko. ||

JARDUNALDIAK, Kontrakantxa gaztetxean

GAUR, asteazkena

11:00, Irekiera: gosaria.
12:00, Hitzarik euskera taldearen hitzaldia: Euskararen zapalkuntza historikoa.
17:00, Muxutruk ekimenaren aurkezpena.
20:00, Presoen inguruko afari-merienda.

BIHAR, osteguna

10:00, Tailer ezberdinak: joskintza, ur-eztia, zunba...
17:00, Ur-Umea txostenaren aurkezpena (Hezkuntza Kritikoa).
19:00, Urrunegi: Okupazioa emantzipazioa bidean.
Gaugan, Emakumeen gaua.

ETZI, ostirala

10:00, Kontrakantxa gaztetxea: Hausnarketa Prozesua.
17:00, Kanika Iraultza!
18:30, Drogen inguruko tailerra (Grabaketa).
22:00, Wukroren aldeko Jam Sesioa.

ABENDUAK 30, larunbata

10:00, Gazte Bizilagunak: Zurumuruak.
16:00, Kontrakantxa gaztetxea: Hausnarketa Prozesua.
21:30, Itxiera.
22:00, Afaria eta Bertso Tailerra.

KIMERA
Fisioterapia - Osteopatia

Indiba Activ Zentro ofiziala

INDIBA activ



www.kimerafisioterapia.com

☎ **TAXIAK:** 943 550093 (Hernani) 622 222 343 (Astigarra) | **UDALTAINGOA:** 943 248900 (Hernani) 943 335230 - 699 487 587 (Astigarra) | **DYA:** 943 464622 | **AUTOBUSAK:** Garayar: 943 556658, Areizaga: 943 452708, Korreoa Goizueta-Hernani: 948 514037 | **ANBULATORIOA:** 943 006666 - 943 203020 (Hernani) 943 33 56 44 (Astigarra) | **JOKALARI / ALKOHOLIKO ANONIMOAK:** 943 331103
✚ / **Egunez:** **Castilla** Urbietan, 7 (Hernani) **943 552941** / **Gauetz:** **Etxebeste** Elkano, 9 (Hernani) **943 552087**

EGURALDIA
GAUR Giro hotza eta ezatsegina izango dugu gaur, haizea ere indartsu ibiliko delako. Euri gehiago egingo du, gainera; eta trumoi-ekaitzak jo dezake, baita kazkabarra egin ere. **Min.6° / Max.11°**
BIHAR Berdintsu jarraituko du bihar, giro ilunarekin, eta euria izango da protagonista oraindik. Haizea mendebaldera aldatuko da arratsaldean, eta indartsu ibiliko da. **Min.6° / Max.12°**
(euskalmet)

ASTIGARRAGA GABONAK

Futbola, saskibaloia eta pilota, urteko azkeneko egunen saltsa

Gabonetako kirol astea ari dira ospatzen. Jolas Txiki eta Jolas Aretoa ere martxan dira.

IGANDEAN iritsi ziren Astigarra gara ere, Olentzero eta Maridomingi; eta muxu, goxoki eta opariekin batera, makina bat ekintza ere ekarri dizkiete herritarrei, haur eta gaztetxo-eri bereziki.

Izan ere, Gabonetako kirol astea ospatzen ari dira Astigarra, joan den ostiraletik; eta beste hiru zita izango ditu, urtea bukatzeko: ate irekiak, saskibaloia probatzeko bihar, 11:00etatik 13:00etara kiroldegian, 6 urtetik gorakoentzat; eta futbola probatzeko etzi, Zarkumendegin. Larunbatean,



Goxokiak eman zizkieten Olentzerok eta Maridomingik, txikienei.

berriz, Pilota Festa egingo dute Txomiñene frontoian, goiz eta arratsalde.

Kiroldegian, bestalde, Jolas Txikiren aurreneko txanda ere martxan da, ostiralera bitarte (10:00-13:00), eta datorren aste-

an izango da bigarrena.

Eta kultur etxean, Jolas Aretoa daukate haur eta gaztetxoek (11:00-13:00 eta 16:00-18:00).

Urtarrilaren 2an, azkenik, haur parkea jarriko dute kiroldegian; sarrera, irekia. ||

ERREMONTA BINAKAKO TXAPELKETA



Endika eta Ezkurra II, eta Etxeberria III eta Uterga, trofeo eta txapelekin. Argazkia: Maialen Andres.

Doneztebera joan ziren txapelak, Uterga eta Etxeberria IIIrekin!

Azkeneko bultzadari esker irabazi zuten Binakako Txapelketaren finala, Ezkurra II eta Endikaren kontra (40-32). Barrenetxea IV, atzelari onena.

OSO lehiatua izan zen Binakako Txapelketaren final handia, eta bukaerara arte, ez zuen hartu alde bikote batek, markagailuan: Utergak eta Etxeberria IIIk eman zuten azkeneko kolpe hori!

Doneztebera eraman zituen bi txapelak bikoteak, Ezkurra II

eta Endikari 40-32 irabazita. Baina ederki kostata lortu zuten garaipena, 24-27 kontrako markagailuari buelta eman behar izan baitzioten; 7 tanto egin zituzten segidan, eta 31-27 jarri ziren. Azkeneko emaitzaren 8 tantoren alde, izan zen partiduko haundiena.

Uterga izan zen protagonista nagusia, mota guztietako 18 tanto eginda. Bera izendatu zuten finaleko jokalaririk onena, eta baita txapelketako aurrelari onena ere. Atzelari onena, berriz, Endika Barrenetxea hernaniarra izan da, semifinale-tatik kanpo geratu arren. ||

ARANO-GOIZUETA GABONAK

Beste bi tailer Aranon eta Goizuetan, gaur eta bihar

Eguberritako tailerrak hasi zituzten atzo, eta beste bi ere izanen dituzte; biak, goizez.

HIRU egunez antolatu dituzte Eguberritako tailerrak, atzo hasi eta bihar arte, Aranon eta Goizuetan. Hiru egunetan, goizez eginen dituzte saioak, 10:00etan hasi eta eguerdiko 13:00etara arte.

Goizuetan egin zuten atzo-

ko tailerra, eta gaurkoa ere, Goizuetan bertan eginen dute, baina goizuetarrentzat zein aranoarrentzat dira. Hain justu, bihar herriz aldatuko dira, eta Aranora mugituko dute tailerra. Ordu berean izanen da, Maisuenean. ||

ASTIGARRAGA UDALA-FORU ALDUNDIA

27 poligonoko trafikoa gutxitzeko, lotura berria

Bidebitarteko errotondarekin lotuko luke poligonoa. Proiektua idaztea, lehiaketara.

ASTIGARRAGAKO eta Donostiako Udalek hala eskatuta, 27 poligonoa Bidebitarteko errotondarekin lotzeko proiektua idatziko du Gipuzkoako Foru Aldundiak. Horrekin, 27 poligonoko eta Martuteneko errotondako trafikoa gutxitzea da helburua: «27 poligonoa industria eremu handi bat da, eta sarrera bakarra dauka. Gaur egun ez da nahikoa, eta pilaketak izaten dira egunero», azaldu du Ainzane Oiartide diputatuak.

Lotura berriak (900 metro), suposatuko du sarrera berri bat izatea poligonoak, zuzenean Bidebitarteko errotondara joango dena, Petritegiko bidearen gaitetik.

«Hobekuntza nabarmena ekarriko die 27 poligonoaren erabiltzaileei, lanera iristeko denbora aurreztuko baitute», adierazi du Zorione Etxezarrraga Astigarragako alkateak.

Proiektua idazteko lana, lehiaketara aterako du laster. ||

ASTIGARRAGA GAZTE ASANBLADA

Brindisa eta 'argazkicool'a, 31 gauean

Urte Zahar gauean «herrian geratu eta gazte guztien artean giro polita sortzeko» apustua egin du Gazte Asanbladak. Aurrena, 01:30etan, brindisa egingo dute Zipotzan, eta argazkicoola ere egongo da. Saria izango du argazki original eta politenak! Eta gero, musika izango da DJ Agarekin. Denen artean sortutako abesti zerrenda jarriko dute. Proposamenak egiteko: [Facebooken](https://www.facebook.com/astigarragazteak), edo astiararakozteak@gmail.com. ||

ASTIGARRAGA UDALA

Ogasun eta Ondare Batzordeak, bilera

Bilera egingo du etzi, eguerdiko 13:30etan Astigarragako udaletxeko areto nagusian, Ogasun eta Ondare Batzordeak. Bertan eztabaidatuko dituzte 2018ko Udal Aurrekontuak, besteak beste. ||

IRAGARKI MERKEAK

Alokatzeko apartamentua behar da Hernanin, lagun bakararentzat. Deitu: 618 207 409

Taberna alokagai, erosteko aukerarekin. Karmelo labaka kalean, Hiba taberna.

Deitu: 943 21 78 56

ETXKO KONPONKETAK egiten dira; iturgintza, elektrizitatea, pintura, berogailuak, persianak... Seriotasuna. Deitu: 616 886 660.

Iñigo Royo Masajista. Masajea, naturopatia, osteopatia, kinesologia, reiki, homeopatia, akupuntura,... Deitu: 943 33 28 94 - 626 80 76 33 (Agustindarren plaza, 4)